

● Hiriak klima **aldaketari aurre egiteko duen gaitasuna** handitzen du:

- landarediak hiri airearen kalitatea hobetzen du, landareak karbono isurbide direlako: baso hektarea batek urtean CO² 2 tona xurga dezake.

- airea freskatzen du; hau oso interesgarria da, badakigulako etorkizunean bero-boladak maizago eta indartsuagoak izango direla. Ba al dakizu zuhaitz batek 10 aire girotu gailuek bezainbeste hozten duela?

● Herritarren **osasun fisikoa eta mentalerako** onurak dakartza: auzo berdeagoetan bizi direnek depresio, antsietate eta estres gutxiago dute. Frogatuta dago naturarekin harremana izateak, nahiz eta hiri natura izan, ona dela gaixotasun fisiko eta mentaletarako.

● Beste **aspektu estetiko** batzuk: herritar gehienoi gehiago gustatzen zaigu kaleak, balkoiak eta leihoak landareekin eta parkeak zuhaitzekin ikustea. Denok ditugu gustuko gure kaleetako udaberriko loraldiak, Artzain Onaren inguruko gereziendoak loretan, Kontxako pasalekuaren tamarindoen irudia, edo gure eraikinak apaintzen dituzten balkoi eta leihoetako edozein lorentzi txiki.